

Euskal AEn jaioen izen ugarienak, Ane eta Markel beti ere

Ane, 1996tik da kutunena

1996tik hona, Ane da neska-izena aukeratzeko orduan gurasoen kutunena, Eustaten arabera, Euskal AEn 2014-2016 artean jaiotakoen izenez ari delarik. Ondoren June, Nahia, Irati, Laia, Nora.

Mutikoentzako izen ugarienak: Markel, Jon, Aimar, Ibai, Julen, Ander.

2014-2016 bitartean, Libe eta Maren sartzen dira aurreneko 25en artean; irten, Aitana eta Garazi. Mutiko izenetan, Hodei eta Izei sartu; Aitor eta Asier irten.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du. Ehun izen ugarienen artean ez dago konposaturik bat ere; garai batean oso-oso ohikoak ziren.

Izen bereko grafia ezberdinak

Euskal izenak dira nagusi, batzuetan bi grafia agertzen direlarik: Ane-Anne, Itxaso-Itsaso, Leire-Leyre, Jon-Ion, Aritz-Haritz. Bi izen ezberdin gisa tratatzen dira.

Ama atzeritarrek ere euskal izenak aukeratzen dituzte

Ama atzeritarrek ere euskal izenak aukeratzen dituzte, baina badago alderik rankin orokorraren aldean. 5 neska-izen ugarienen arteko 2 – Nahia (3.) eta Haizea (5.)-euskal izenak dira; zerrendako aurrenekoa Sara da, hebrearra; bigarren Sofia, grekoa; laugarrena Aya arabiarra. Mutiko-izenetan Ander bosgarren; aurrena Adam, hebrearra; bigarren Mohamed, arabiarra; hirugarren Daniel eta laugarren David, hebrearrak.

Amen artean Ainhoa eta Leire nagusi; aiten artean Aitor eta David

Hona hemen 2014/2016 artean ama izandakoen izen ugarienenak: Ainhoa, Leire, Nerea, María, Amaia, Ainara, Laura, Marta, Cristina, Estibaliz. Emakume hauek gehienak 1976-1985 artean jaio ziren; 3 izen ugarienenak euskal izenak ziren, baina izen gaztelarrak oraindik asko erabiltzen ziren, batez ere Mariarekin konposatuak.

2014/2016 artean aita izan zirenen izen ugarienenak: Aitor, David, Iker, Javier, Mikel, Jon, Asier, Gorka, Iñigo, Iñaki. 1974-1983 artean jaiotako gizonak, gehienak; izen konposatuak gutxituz, euskal izenak gehituz.

1. Taula: Euskal AEn jaioen 25 izen ugariak. 2014-2016

	Neskak		Mutilak	
	Izena	Maiztasuna	Izena	Maiztasuna
1	Ane	812	Markel	724
2	June	615	Jon	670
3	Nahia	560	Aimar	595
4	Irati	527	Ibai	592
5	Laia	447	Julen	558
6	Nora	418	Ander	547
7	Noa	411	Oier	508
8	Uxue	407	Iker	489
9	Lucía	404	Mikel	476
10	Izaro	384	Unax	469
11	Malen	375	Unai	451
12	Haizea	374	Martin/Martín	414
13	Maddi	374	Danel	394
14	Sara	370	Eneko	384
15	Paula	330	Oihan	374
16	Maialen	292	Amets	363
17	Iraia	281	Xabier	313
18	Enara	280	Alain	304
19	Martina	269	Hugo	303
20	Naia	264	Aner	288
21	Elene	240	Beñat	287
22	Leire	238	Izei	282
23	Naroa	212	Hodei	275
24	Libe	202	Álex	255
25	Maren	202	Ekain	251

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62